



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

IRASKUNDE ADIERAZPENA: GIZA ESKUBIDEAK

Orain 73 urte, Parisen, NBEko estatu kideek adierazo eben "gizaki guztiak aske jaiotzen dirala, bardinak izanik duintasunari eta eskubideei begira". Geroago, 1966an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak nazinoarteko giza eskubideen garapena betiko oinarrituko eben nazinoarteko tratatu bi onartu zituan: Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazinoarteko Ituna (PIDESC) eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (PIDCP). Itun bi horreek, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalagaz batera, Giza Eskubideen Nazionarteko Gutuna eratu eben, gizaki guztiek jaiotzean dituen eskubideen multzoa osatuz.

Giza Eskubideen Nazinoarteko Gutunak jasoten dauen moduan, giza eskubideak besterenduezinak, alkarri lotuak, alkarren mendekoak, zatiezinak eta pertsona guztiei atxikiak dira, ezelako bereizketarik egin barik. Giza Eskubideetako bakotzak aurrera eginez errezagoa da ganerakoek aurrera egitea, eta eskubide horreetariko bat kentzeak kalte egiten deutso ganerakoak egikaritzeko aukereari.

2021. urte honetarako, Giza Eskubideen Eguneko kanpainearen goiburua "bardintasuna" da, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 1. artikuluari erreferentzia eginez: "Gizaki guztiak aske jaioten dira, bardinak izanik duintasunari eta eskubideei begira". Bardintasunaren ideia hori bat dator Agenda 2030agaz eta Nazio Batuen Erakundeak inor atzean ez ixteko dauen ikuspegiagaz.

Bardintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak Nazioarteko Zuzenbidearen aginduzko arauak dira, eta Bizkaiko Batzar Nagusiak behartzen ditue Bizkaian bizi diran pertsona guztien giza eskubideak bermatuko dituen zerbitzu eta politikak euren egituren erdigunean ipintera, ezelako bereizkeriarik egin barik errazoi honeetariko bategaitik: arrazea, azalaren kolorea, sexua, hizkuntza, erlijinoa, politikako edo bestelako eretxiak, jatorri etnikoa, nazionala, posizio edo egoera soziala, nazionalitatea, estatutu zibila, familia-egoerea, filiazinoa, adina, desgaitasuna, osasuna, bizilekua, administrazio-estatusa, sexu- edo genero-orientazio edo -identitatea, talde bateko kide izatea...

Bizkaiko Batzar Nagusiek adierazo gura dabe 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak herri guztientzat dakarren idealean aurrerapen barriak lortzeko konpromisoa dabela, eta euren konpromisoa berretsi gura dabe honako jarduketa honeen bidez:

1.- Bizkaiko Batzar Nagusiek GIZA ESKUBIDEETAN OINARRITUTAKO EKONOMIAREN garapena sustatzeko konpromisoa hartzen dabe, TXIROTASUN-ZIKLOAK HAUSTEKO.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Kontratu sozial barria behar dogu, boterea, baliabideak eta aukerak modu bidezkoagoan partekatuko ditutana eta giza eskubideetan oinarritutako ekonomia jasangarriaren oinarriak ezarriko ditutana.

Horretarako, erabakitasunez jardungo da gizonen eta emakumeen arteko bardintasuna esparru guztietan gauzatzeko, bai eta herritarren sektore jakin batzuek eta, bereziki, diskriminazio handiena jasaten daben kolektiboek euren eskubideak baliatzeko dituen oztopoak identifikatzeko be.

Hirugarren paragrafo bat eransteko proposamena: (Nazino Batuen "Muturreko pobrezia eta giza eskubideei buruzko printzipio gidariak").

Era berean, politika publikoek eta pobrezia desagerrarazteko ahaleginek gizarteko kide pobreenengana heltzen dirala bermatzeko lan egingo da, eta bermatzeko, orobat, euren eskubideak errespetatzen eta defendatzen dituela eta pobrezian bizi diran pertsonen giza eskubideez gozatzeko dituen oztopo sozial, kultural, ekonomiko eta estruktural esanguratsuak kontuan hartzen dituela.

2. Batzar Nagusiek BIDEZKOAGO BERRERAIKITZEKO konpromisoa hartzen dabe: KONTRATU SOZIAL BARRI BAT

Giza eskubideak, eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, bai eta garapenerako eskubidea eta ingurumen seguru, garbi, osasuntsu eta iraunkorra izateko eskubidea be, funtsezkoak dira eskubideetan oinarritutako ekonomia barri bat eraikitzeke, giza eskubideak barne, egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat gizarte hobek, bidezkoak eta jasangarriak babestuko ditutana. Giza eskubideetan oinarritutako ekonomiak kontratu sozial barri baten oinarria izan behar dau.

Ildo horretan, Batzar Nagusiek zeharkako politikak egiteke konpromisoa hartzen dabe, zeinetan izango diran eskubide zibil eta politikoak, indarkeriarik eta diskriminaziorik izango ez dan bizitza baterako eskubidea, kultura- eta ingurumen-eskubideak (DESCA), eta garapena, bakea eta elkertasuna izateke eskubidea Bizkaiko agenda politikoan egongon diran.

3. Batzar Nagusiek konpromisoa hartzen dabe GAZTEENTZAKO AUKERABARDINTASUNA bermatzeko.

Finantza- eta osasun-krisiek ondorio iraunkorrak eta dimentsino askokoak izan ditue milioika gazterengan. Euren eskubideak babesten ez badira, baita enplegu duinaren eta gizarte-babesaren bidez be, "COVID belaunaldiak" gero eta arrisku handiagoa dauka desbardintasunaren eta pobreziaaren ondorio kaltegarriek harrapatu daiezan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Eta, alde horretatik, herritar aktiboak, parte-hartzaileak, euren eskubideak ezagutzen dituenak eraikitzen laguntzeko lan egingo dogu, bai eta gardentasun-politiketan eta Administrazio Publikoak herritarren aurrean egiten dauen jarduera guztiaren kontu emoteko politiketan lanean jarraitzeko be; horretarako, aktiboki parte hartuko dugu lurraldeko politika-, gizarte-, ekonomia- eta kultura-arloetako gozamen demokratikoan.

Gazteen garapenerako politika publikoak indartzeko, Gazteentzako Munduko Ekintza Programeagaz eta Garapen Jasangarrirako 2030 Agendagaz bat etorriz.

4. Bizkaiko Batzar Nagusiek konpromisoa hartzen dabe TXERTOEN ARLOKO DESBARDINTASUNARI ETA BIDEGABEKERIARI BUELTEA EMOTEKO.

Txertoei jagokenez banaketa eta metatze bidegabearen bidez egin da bidegabekeriak urratu egiten ditu nazinoarteko lege-arauak, giza eskubideei buruzko arauak eta mundu mailako elkartasun-espirtua. Programa komun baten eta gobernuen eta herrien arteko kontratu sozial barri baten aldeko deia une honetako preminea da, konfiantza berrezarteko eta guztiontzako bizitza duina bermatzeko.

Ildo horretan, Nazio Batuek eta Osasunaren Mundu Erakundeak egindako txertaketa-estrategia orokorra babesteko konpromisoa hartzen dabe Batzar Nagusiek.

5. Bizkaiko Batzar Nagusiek konpromisoa hartzen dabe INGURUMEN OSASUNTSURAKO ETA JUSTIZIA KLIMATIKORAKO ESKUBIDEA SUSTATZEKO.

Ingurumen-degradazioak, horren barruan klima-aldaketea, kutsadurea eta naturaren galera barruan dirala, neurritz kanpo eragiten deutse egoera ahulean dagozan pertsoneri, taldeei eta herriei. Inpaktu horreek areagotu egiten ditue dagozan desbardintasunak, eta modu negatiboan eragiten deutsee oraingo eta etorkizuneko belaunaldien giza eskubideei.

Giza Eskubideen Kontseiluak ingurumen garbia, osasungarria eta jasangarria izateko giza eskubideari egiten deutsan automenaren jarraipen gisa, preminazko neurriak hartu behar dira eskubide hori errespetatu, babestu eta eraginkor bihurtzeko. Ekintza horrek giza eskubideetan oinarritutako ekonomia barri baten oinarria izan behar dau, COVID-19aren susperraldi berdea eta trantsizino bidezkoa eragingo dituana.

6. Bizkaiko Batzar Nagusiek konpromisoa hartzen dabe GATAZKAK PREBENITZEKO ETA BARDINTASUNAREN, GIZARTERATZEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ARLOAN ERRESILIENTZIA SORTZEKO.

Giza Eskubideek gatazken eta krisien kausa sakonei aurre egiteko ahalmena dabe, kexei helduz, desbardintasunak eta bazterkeria ezabatuz eta pertsoneri euren bizitzei



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

eragiten deutseen erabagietan parte hartzeko aukera emonez. Guztiontzako giza eskubideak babesten eta sustatzen dituen gizarteak erresilienteagoak dira, giza eskubideen bidez ustebako krisiei (pandemieiei eta krisi klimatikoaren inpaktuei, esaterako) aurre egiteko hobeto hornituta dagoz. Bardintasuna eta diskriminaziorik eza funtsezkoak dira prebentziorako: guztiontzako Giza Eskubide guztiek bermatzen dabe giza eskubideen onura prebentiboetara irispidea izatea, baina, pertsona edo talde jakin batzuk baztertzen diranean edo diskriminazioa jasaten dabenean, desparekotasunak gatazkearen eta krisiaren zikloa bultzatuko dau.

Alde horretatik, Bizkaiko Batzar Nagusiek behar diran baldintzak sortzeko konpromisoa hartzen dabe, bardintasuna eta diskriminaziorik eza pertsona guztientzat benetakoak eta eraginkorrak izan daitezkan.

Bizkaiko Batzar Nagusiek herritarrei eskatzen deutsegu babeska emon deioela Berdintasunari Giza Eskubideen Egunean, NBEko goi-komisionatuak sare sozialetan egiten dauen kanpainan, #defendatugizaeskubideak, #Bardintasuna eta #GizaEskubideenEguna traolak erabiliz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL: DERECHOS HUMANOS

(Gernika, a 13 de diciembre de 2021). En París, hace 73 años, los Estados Miembros de la ONU afirmaron que "todos los seres humanos nacen libres e iguales en dignidad y derechos". Más tarde, en 1966, la Asamblea General de las Naciones Unidas adoptó dos tratados internacionales que cimentarían para siempre el desarrollo de los derechos humanos internacionales: El Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales (PIDESC) y el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos (PIDCP). Estos dos Pactos, junto con la Declaración Universal de Derechos Humanos, formaron la Carta Internacional de Derechos Humanos, constituyendo el conjunto de derechos de todo ser humano al nacer.

Tal y como recoge la Carta Internacional de DDHH, los Derechos Humanos son inalienables, interrelacionados, interdependientes, indivisibles e inherentes a todas las personas sin distinción alguna. A través del avance de cada uno de los Derechos Humanos se facilita el avance de los demás, al igual que la privación de uno de ellos afecta negativamente al disfrute de los demás.

Propuesta: Para este año 2021, el lema de la campaña del Día de los Derechos Humanos es "la Igualdad", haciendo referencia al artículo 1 de la Declaración Universal de Derechos Humanos, "Todos los seres humanos nacen libres e iguales en dignidad y derechos". Esta idea de igualdad está alineada con la Agenda 2030 y con el enfoque de la ONU de no dejar a nadie atrás.

Los principios de Igualdad y no discriminación son normas imperativas del Derecho Internacional que obligan a las Juntas Generales de Bizkaia a poner en el centro de sus estructuras, servicios y políticas que garanticen los Derechos Humanos de todas las personas que habitan en Bizkaia, sin discriminación alguna por razón de raza, color, sexo, idioma, religión, opinión política o de otra índole, origen étnico, nacional, posición o condición social, nacionalidad, estatuto civil, situación familiar, filiación, nacimiento, edad, discapacidad, estado de salud, lugar de residencia, estatus administrativo, orientación o identidad sexual o de género, pertenencia a un grupo...

Las Juntas Generales de Bizkaia quieren manifestar su compromiso con la consecución de nuevos avances y progresos en el ideal común para todos los pueblos que supone la Declaración Universal de Derechos Humanos de 1948 reiterando su compromiso mediante las siguientes actuaciones:

1.- Las Juntas Generales se comprometen a promover el desarrollo de UNA ECONOMÍA BASADA EN LOS DERECHOS HUMANOS para ROMPER LOS CICLOS DE POBREZA.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Necesitamos un nuevo contrato social que comparta de manera más justa el poder, los recursos y las oportunidades y sienta las bases de una economía sostenible basada en los derechos humanos.

Para ello se actuará decididamente para hacer realidad la igualdad entre hombres y mujeres en todas las esferas, así como para identificar los obstáculos que, para el ejercicio de sus derechos, sufren ciertos sectores de la población y, en especial, los colectivos más discriminados.

Propuesta de adición de un tercer párrafo: (Naciones Unidas sobre "Principios rectores sobre extrema pobreza y DDHH).

Así mismo, se trabajará para asegurar que tanto las políticas públicas como los esfuerzos dirigidos a la erradicación de la pobreza, alcanzan a los miembros más pobres de la sociedad; respetan y defienden sus derechos, y toman en cuenta los significativos obstáculos sociales, culturales, económicos y estructurales que enfrentan las personas que viven en la pobreza para gozar de los derechos humanos.

2. Las Juntas Generales se comprometen a RECONSTRUIR MAS JUSTO: UN NUEVO CONTRATO SOCIAL.

Los derechos humanos, económicos, sociales y culturales, así como el derecho al desarrollo y el derecho a un medio ambiente seguro, limpio, saludable y sostenible, son fundamentales para construir una nueva economía basada en los Derechos incluidos los derechos Humanos que apoye sociedades mejores, justas y sostenibles para las generaciones presentes y futuras. Una economía basada en los Derechos Humanos debe ser la base de un nuevo contrato social.

Y en este sentido las JJGG se comprometen a realizar políticas transversales donde los derechos civiles y políticos, los derechos a una vida libre de violencia y discriminación, los culturales y ambientales (DESCA), así como el derecho al desarrollo, la paz y la solidaridad estén presentes en la agenda política de Bizkaia. derechos económicos, sociales...

3. Las Juntas Generales se comprometen a garantizar IGUALDAD DE OPORTUNIDADES PARA LOS Y LAS JOVENES.

Las sucesivas crisis financieras y sanitarias han tenido repercusiones duraderas y multidimensionales en millones de jóvenes. A menos que se protejan sus derechos, incluso a través del empleo decente y la protección social, la "generación COVID" corre el riesgo de ser presa de los efectos perjudiciales de la creciente desigualdad y pobreza.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Y en este sentido trabajaremos para contribuir a la construcción de una ciudadanía activa, participativa, consciente de sus derechos, así como a seguir trabajando en políticas de transparencia y de rendición de cuentas de la Administración Pública de toda su actuación ante la ciudadanía participando activamente en el disfrute democrático en ámbitos políticos, sociales, económicos, culturales del territorio.

A fortalecer las políticas públicas para el desarrollo de la juventud en consonancia con el Programa de Acción Mundial para los Jóvenes y la Agenda 2030 para el desarrollo sostenible.

4. Las Juntas Generales de Bizkaia se comprometen a REVERTIR LA DESIGUALDAD Y LA INJUSTICIA DE LAS VACUNAS.

La injusticia de las vacunas a través de la distribución y el acaparamiento injustos de vacunas contraviene las normas internacionales legales y de Derechos Humanos y el espíritu de solidaridad mundial. El llamamiento a favor de un programa común y de un nuevo contrato social entre los gobiernos y sus pueblos es la necesidad del momento a fin de restablecer la confianza y garantizar una vida digna para todos.

En este sentido las juntas generales se comprometen a apoyar la Estrategia Global de Vacunación elaborada por Naciones Unidas y la Organización Mundial de la Salud

5. Las juntas generales de Bizkaia se comprometen a PROMOVER EL DERECHO A UN MEDIO AMBIENTE SANO Y LA JUSTICIA CLIMÁTICA.

La degradación ambiental, incluido el cambio climático, la contaminación y la pérdida de la naturaleza, afecta de manera desproporcionada a las personas, los grupos y los pueblos en situaciones vulnerables. Estos impactos exacerban las desigualdades existentes y afectan negativamente los Derechos Humanos de las generaciones presentes y futuras.

Como seguimiento del reconocimiento por el Consejo Derechos Humanos, al derecho humano a un medio ambiente limpio, saludable y sostenible, deben adoptarse medidas urgentes para respetar, proteger y hacer efectivo este derecho. Dicha acción debe ser la piedra angular de una nueva economía basada en los Derechos Humanos que produzca una recuperación verde de la COVID-19 y una transición justa.

6. Las Juntas Generales de Bizkaia se comprometen a trabajar en la PREVENCIÓN DE CONFLICTOS y en la CREACIÓN DE RESILIENCIA A TRAVÉS DE LA IGUALDAD, LA INCLUSIÓN Y LOS DERECHOS HUMANOS.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Los Derechos Humanos tienen el poder de abordar las causas profundas de los conflictos y las crisis, abordando las quejas, eliminando las desigualdades y la exclusión y permitiendo que las personas participen en la toma de decisiones que afectan sus vidas. Las sociedades que protegen y promueven los Derechos Humanos para todos son sociedades más resilientes, mejor equipadas a través de los Derechos Humanos para capear crisis inesperadas como las pandemias y los impactos de la crisis climática. La igualdad y la no discriminación son clave para la prevención: todos los Derechos Humanos para todos garantizan el acceso a los beneficios preventivos de los derechos humanos, pero, cuando ciertas personas o grupos son excluidos o se enfrentan a la discriminación, la desigualdad impulsará el ciclo de conflicto y crisis.

En este sentido las Juntas Generales de Bizkaia se crisis inesperadas comprometer a crear las condiciones necesarias para que la igualdad y no discriminación sean reales y efectivas para todas las personas.

Desde las Juntas Generales de Bizkaia solicitamos a la ciudadanía a mostrar su apoyo a la Igualdad en el Día de los Derechos Humanos en la campaña del alto comisionado de la ONU en las redes sociales usando los hashtags #defiendelosderechoshumanos, #Igualdad y #DíadelosDerechosHumanos.